

Zuri, Peter:

Haizeak betiko indarrez kolpatzen ditu etxeko leihoak eta euria ere hasi da leun-leun kristalen gainean egiten duen musika horrekin. Gainerakoan isiltasuna da nagusi eta neure bihotz-taupaden hotsen aurka egiten ari dela dirudien lasaitasun modukoa nabari da giroan. Kaleak oraindik ere hutsik eta ilun daude, eta tarteka beroki potoloen azpian ezkutatuta doazela diruditen langile batzuen silueta modukoa baino ezin dezaket ikusi leihotik. Korrika txikian doaz guztiak, haien mamu eta amesgaizto ilunenetatik ihesian joango balira bezala. Eta, nolabait, neu ere horrela sentitu izan naiz azken urteotan; ezagutzen ez ditudan mamuen beldur, egunerokotasunetik eta indarrez kolpatzen nauen errealitate honetatik ihesi. Baina bada garaia horri aurre egiteko eta horrek bultzatu nau eskuen artean duzun gutun hau idaztera.

Orain hamabost urte ezagutu genuen elkar. Baliteke zenbaitentzat denbora-tarte txikia izatea, baina beste askorentzat bizitza osoa ere bada, eta halaxe bihurtu da niretzat ere. Hemezortzi urte eskas nituen ezagutu eta bizitza goitik behera aldatu zenidanean eta, orain, hogeita hamahiru urterekin, bizitza hura amaitu zaidala eta berriari aurre nola egin behar diodan ez dakidala sentitzen dut. Gorputza kolpatuta, minbera eta indarrrik gabe dut, etorkizunari aurre egiteko gogorik eta interesik gabe. Nora joan dira nire gaztaroko bizipoz eta zorion haiek? Bat-batean galdu ote ninduen edo, beste hamaika gauzarekin gertatu izan zaidan moduan, pixkanaka-pixkanaka, ia jabetu ere egin gabe, horiek ere galtzen joaten ote naiz? Bidean atzera egin eta galtzen joan naizen gauzen errebasoa egiten hasita, zerrenda etengabe hazten doala jabetu naiz, baina guztiaren gainetik, bada neure buruari etengabe egiten diodan galdera bat: merezi izan al du? Eta, une horietan, ametsen munduan lo behar luketen bi gazteren aurpegiak etortzen zaizkit burura. Elene eta Sarah. Horiek izan dira eta dira sekula eman dizkidazun oparirik onenak eta, zailtasunak zailtasun, aurrera jarraitzera bultzatu izan nautenak.

Une jakin batzuetan bakarrik bada ere, burua aske utzi eta atzera egiteko baimena ematen diot, eta gozoak eta zirraragarriak izan ziren une haietan barneratzen naiz, nahiz eta jakin gero, errealiterako itzulera, masaileko ederra izaten den. Elkar ezagutu genueneko une haiez ari naiz. Zu ere akordatzen al zara? Edo, beste hainbat une alairekin egin izan duzun moduan, sentimendurik gabeko bihotz horren pisuaren azpian ezkutatuta dituzu haiek ere? Ankerkeria, bihozgabekeria eta hoztasuna dira gorputzean dituzun sentimendu bakarrak eta behinola irribarre egitera eraman zintuzten une eta pasadizo haiek ere ahaztuta izango dituzula uste dut. Zoritxarrekoa zu.

Duela 15 urte, herritik lehen aldiz atera nintzen, baina unibertsitatera joateko txiki-txikitatik izan nuen ametsa urduritasuna eta beldurra eragiten zizkidan abentura berri hari aurre egiteko nahikoa izan zen. Dena zen ezezaguna niretzat: tokia, inguruko jendea, ikasketen sistema, janaria, nire zereginak... baina guztiaren gainetik, hazten jarraitzeko eta gauza berriak ikasten jarraitzeko beharra zeuden. Eta hori, behintzat, ederki egin nuen halabeharrak bultzatuta: hazi eta ikasi.

Inoiz ez ginen ados jarri elkar ezagutu genuen toki eta unea zehazteko garaian: horrenbeste ordu eman genituen taberna-zulo hura aipatzen nuen nik, fakultateko kafetegia zuk. Baina tokia edozein izanda ere, makina bat ordu eman genituen elkarrekin, batzuetan bakarrik, eta besteetan lagunekin batera. Une gozoak izan ziren. Hori ezin dut ukatu: garagardoak, barre-algarak, infusioak, erdizka elkarri esandako maitasun-hitzak, liburutegian ikasten aritzearen itxurak egiten emandako orduak, batak besteari karpeta barruan ezkutatutako oharak, gaizki ulertuak eta elkarrekin geratzeko edozein aitzakia izan ziren gure egunerokoa lehenengo hilabete haietan. Baina ondo genekien gure artean sortzen ari zen maitasun-istorio hark bazuela nolabait iraungipen-data. Nik ikasketekin aurrera jarraitu behar nuen, baina zuk zure herrialdera itzuli behar zenuen Erasmuseko egonaldia amaitutakoan. Akordatzen zara? Asko hitz egin genuen horretaz. Gure artekoak hasiera-eta amaiera-data finkatuta izan behar zituen hasiera-hasieratik, baina ez genuen aintzat hartu patua eta hark erabaki zuen gure izenean, sabelaldean hazten hasi zen neskati la hura gure bidean jarrita. Orduan iritsi ziren gure arteko lehen liskarrak, urduritasunak eta desadostasunak. Baina aurrera egitea erabaki genuen. Orain, ordea, atzera begira jarri eta gogoeta egiten dudanean, aurrera egitea baino, atzera egin ote nuen susmoa dut. Nolabait, nire kasuan, atzera egin eta zulo ilun batean barneratzen hasi nintzeneko lehen uneak izan ziren. Zurrunbiloan barneratu ginen eta dena utzi eta zurekin joateko erabakia hartu nuen orduan, zer egin behar genuen edo onena zer izan zitekeen

kontuan hartu ere egin gabe.

Hala, udaberriko egun hotz batean, lehen aldiz iritsi nintzen Londresera, zure hirira. “Nik zainduko zaitut”, esan zenidan, baina ez nuen ondo neurtu hitz horien atzean zer zegoen. Jarraian iritsi zena bat-batean etorri zen: sabel azpialdean min handia, ospitalerako bidea, ebakuntza-gelara korrika, bakardadea, hotza, beldurra, “amaitu dugu” hitzak eta, ondoren, besoetan Sarah jarri zidaten une hura. Hala, ia ezustean, ama bihurtu nintzen jaio nintzen herritik milaka kilometrotara, aurpegi ezezagunak baino ikusten ez nituen toki hartan. Auskalo non zinen zu orduan ere!

Guztiari agur esan behar izan nion orduan: zure kontrolpean nahi ninduzun eta lagun eta familiarekin egiten nituen telefono-deiak zelatatzen hasi zinen. Hango hizkuntzan ere ez nintzen ondo moldatzen eta denerako zure beharra nuela sentiarazten zenidan horrekin. Nola ez nuen ba hala sinetsiko? Etengabe esaten zenidan, zu gabe ez nintzela ezer eta Sarah zaintzeko ere ez nintzela gai. Handik hilabete gutxira, betiko lagunak eta familia urrunegi sentitzen nituen eta, gainera, ez nuen bizitzen ari nintzen laztasun haren berririk izatea nahi eta, pixkanaka, haien eta nire arteko komunikazioa eteten joan zen. Hasieran, baliteke zuk bultzatuta izatea, baina ezin diot gezurrik esan neure buruari: horretan zerikusi handia izan nuen neuk ere. Betiko loturak eten eta inoiz baino kateatuago sentitu nintzen. Hilabete batzuk geroago iritsi zen Elene ere eta, harekin batera, egoera hartatik sekula ateratzeko nire aukerak ezerezean geratu zirela iruditu zitzaidan. Bi neskatilak zaintzera kondenatuta nengoen eta, gainera, ezinbestean nengoen zuri lotua. Izan ere, munduan bakarrik sentitzen nuen neure burua, noraezean, inora joan ezinean. Nire mundu osoa Sarah, Elene eta zuk osatzen zenuten eta, nolabait, betiereko kartzela-zigorra zela iruditzen zitzaidan. Baina ez ulertu gaizki nire hitzak: Elene eta Sarah dira goizero, zerurantz begiratzuz, aurrera egiteko lehen arnasa eta bultzada ematen didatenak eta bizitzen jarraitzeko ditudan motibo bakarrak. Ez zait besterik geratzen. Ondo saiatu zinen bai zu horretan, eta nik ere lana erraztu egin nizula esango nuke. Nire gogoa eta bizipoza suntsitu zenituen, baina, aldi berean, neuk ere neure autoestimua eta bizitzeko gogoa birrindu nituela uste dut. Ezin, beraz, guztiaren errua zuri bota.

Eta orain, atzera egitea erabaki dudanez une honetan, ez zait ezer geratzen. Jaioterriko lagunak eta senideak baztertu nituen, orain hamabost urtera arte sendoak zirela eta jaio nintzen lur hari betiko lotuko nindutela uste nuen sustraiak ustelduta daude eta itzuli izan naizen pare bat aldietan hango kale eta plazak arrotzak iruditu zaizkit, sekula txoko horiek ezagutu izan ez banitu bezala. Eta orain, orri zuri honen aurrean eseri naizen honetan, hartu dut erabakia. Iraganaz gain, etorkizuna ere zapuztu didazu etxera ekarri zenuen gaixotasun kutsakor honekin. Ondo dakit odolean zabaltzen eta gaiztotzen ari zaidan gaitz honek berriro ere infernua eta samina baino ez dizkidala ekarriko. Borrokarako indarrik ere ez zait geratzen baina, medikuak argi esan zidan moduan, une gogorak izango ditut aurretik. Heldulekurik eta bultzada egin ahal izateko oinen azpian inolako euskarririk gabe, zorabiatuta eta zulo beltzaren barruan sentitzen dut neure burua.

Eta bat-batean, gure kaleko isiltasuna hautsi duen zarata entzun da. Segundo batzuk behar izan ditut zarata boligrafoaren ondoan dudanez eskopetatik atera dela jabetzeko. Eta hortxe zaude zu, odol-putzu handi baten erdian. Segundo batzuez gora begiratu dut, horrekin egin dudana ezabatuko banu bezala, baina ez. Berriro ere begirada zu zauden tokira zuzendu dudanean, izua eta harridura suma ditzaket zure begietan. Izua, borborka ihes egiten dizun odol-jarioa noiz etengo den jakin nahian agian. Eta harridura, berriz, horrenbeste urtean zure kolpe, irain eta ankerkeriaren biktima izan den hau mendeku hartzeko ausardia ateratzeko gai izan delako agian.

Izan ere, ezer gabe utzi ninduzun eta horrexek egin nau ausart. Ez dut ezer galtzeko. Geratzen zitzaidan gauza bakarra, osasuna, ere hondatu didazu orain aste batzuk erantsi zenidan eta auskalo non harrapatu zenuen gaixotasun horrekin, eta horrekin batera, baita neure etorkizuna ere. Honela amaituko da gure istorio hau, baina gure alabek haienarekin aurrera jarraituko dute, koldarra izan zen amarik eta etxera mina eta suntsidura bakarrik eraman zituen aitarik gabe, aske.

Madarikatua zu!

*Maialen*